

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Doneztebe-Irurtzun Txirrindularitza-ibilbideko UGEPS onartu da, Ederbidea mugaz haraindiko proiektuan kokatua

52 km-ko luzeran, Plazaolako eta Bidasoako bide berdeak konektatzen ditu

Asteazkena, 2018.eko uztailak 25

Nafarroako Gobernuak Doneztebe /Santesteban-Irurtzun Txirrindularitza Ibilbidearen Udalez gaindiko Eragineko Proiektu Sektoriala onartzen duen erabakia hartu du gaurko bileran.

UGEPS delakoa Nafarroa baino eremu handiagoko proiektuaren barnean kokatzen da; hots, Ederbidean; hain zuzen ere, mugaz haraindiko proiektua Interreg V-A programako (Espainia-Frantzia-Andorra) proiektuen lehen deialdian programatua da ([POCTEFA](#) 2014-2020), eta horren helburua da Iruña, Donostia eta Baiona lotzea 240 km-ko txirrindularitza-bidearen bitartez, eta bizikleta erabiltzea

sustatzea bai turismo eta aisiarako, bai eguneroko joan-etorrietarako. Nafarroan, Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak elkartuko dira, UGEPS honen xedeko tartea, eta Plazaolako trenbide zaharra Iruñarekin konektatuko da.

UGEPS-ek definitutako ibilbideak guztira 52 km-ko luzera du, eta honako udal-mugarteak zeharkatzen ditu: Doneztebe / Santesteban (Bidasoako bide berdearekin konektatzen du), Donamaria, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien, Saldias, Basaburua, Imotz (Plazaolako bide berdearekin konektatzen du Latasan), Arakil eta Irurtzun.

Ibilbidearen zatirik handiena, luzeraren %77 baino zerbait gehixeago, batez besteko trafiko motorizatuaren maila (IMD) eguneko 1.000 ibilgailutik beherakoa duten errepideetan igarotzen da, eta gainerakoa tokiko pistek, bideek eta ormigoiarekin edo zabor-legarrarekin egindakoek osatzen dute. Trazaduran, luzetarako %6tik gorako maldak daude bidearen %12tik



EDERBIDEA.

gorako distantzian, eta %22ra bitartekoak zenbait tartetan.

Aldi berean, trazatuak Bidasoako eta Plazaolako bide berdeekin konektatzen du, Donezteben eta Latasan, hurrenez hurren. Ederbidea UGEPS-ek "Plazaolako ibilbide zaharra berreskuratzea (Irurtzun-Leitza tarte) UGEPS ordezkatzeari proposatzen du Latasatik Irurtzuneraino.

Eurovelo

Horrez gain, UGEPS honen helburua da Plazaolako eta Bidasoako bide berdeak konektatzeko txirrindularitza-ibilbidea egokitzea eta Eurovelo sarearen zati bat Nafarroan osatzea ([Eurovelo-1](#)), Endarlatsatik Iruñeraino. Gogoratu behar da Eurovelo Europako Txirrindularien Federazioak zuzentzen duen proiektua dela, eta txirrindularitza-ibilbideen sarea osatu nahi duela Europako kontinentea oso-osorik konektatzeko, distantzia luzeko turistek nahiz tokiko herritarrek beren eguneroko ibilbideetan erabil dezaten. Zehazki, EV-1 Ibilbideak Norvegiako fiordoetatik hasi, eta Irlandako kostatik, Nantestik (Frantzia) Iruñatik igaro eta Portugalgo Algarveraino konektatzen du, 9.100 km inguruko ibilbidearekin. Ibilbide honen barruan sartzeko, trazatuak diseinu-irizpide batzuk bete behar ditu.